

SUZKO TXORIA

(jarraipena)

Begi-belarri nintzan dana, nun ikusiko ete-naban a txoria, baiña ez naban errasturik be aurkitzen.

Orduan azkonar-zuloko arri bat artu, eta goialdeko orri-artera lota naban, txoriak urtengo ebalakoan.

Eta alantxe gertatu be egin zan, baiña arritzekoa zan ikusten naban a: suzko txoria zan. Suzkoa, bai, suzkoa! Uso baten antzekoa tamañuz, baiña suzkoa dana.

Egoak ondo zabalduta, indar aundirik egin barik, errez-errez igo eban Mugarra alderuntza. Mendiganeko muga-arriaren parean ezkutuau zan.

Miñutu-erdiren bat izango zan, a beste munduko txoria ikustea.

Buruari eragin be egin neutsan, astinketan, amesetan-edo nengoa jakitearren, baiña bai zera! Stravinskyren soñua-edo entzuten ete-nengoa be uste naban-da!! Alakorik!!!

—*Benetakoa ete-da ba Fokinen suzko txoria? Mutillak, zoratzeko be badok au! Chahoren Aitor agurazarra, bere bizar zuri ta guzti emen bertan orain agertzea ta besterik e'txate falta!*

Bada-ezpadan be, iak-eta erdi-illuntzia zan ezkeru, batu nabazan pintatzeko tresnak, eta goitik berantza asi nintzan astiro astiro.

Amaitu barik gelditu zan lauuko txikia. An egongo da etxean, kamarako baztarren batean, edo gela zarreko eskapolotean.

Orraitik gure neuke amaitzea egunen batean, suzko txori ta guzti.

BITAÑO.

Irun'en, 1964. Pazko-Jaietan.